

BURUA HOTZ

Oso gogoan dut Salamancako medikuntzako fakultatean graduatu nintzeneko eguna. Zaila zen, eta oraindik ere bada, nirea bezalako familia xume bateko senitarteko batek unibertsitateko joateko aukera izatea. Hala ere, berehala eman nion baiezkua duela hamar urte sortu zitzaidan aukera horri. Agian, lau anaia-arrebatatik zaharrena naizelako egokitu zitzaidan aukera hori niri, baina nire etxean ez ditu inork gehiago unibertsitateko ikasketak burutu. Sekulako sakrifizioa zen nire ama bezalako alargun txiro batentzat, semeari goi-mailako ikasketak ordaintzea, hori izan zen batez ere ikasketak izugarri serio hartzeko nire arrazoia. Gainera, banekien zein handia zen semeetako bat mediku izateak amari eragiten zion poztasun eta harrotasunaren arteko nahasketa bitxi hura; izan ere, garai hartan, mediku ikasketak lortzen zituztenak familia onekoak izan ohi ziren gehienetan eta, egia esan, harrotzekoa zen nire familiak hori lortzea.

Graduatu orduko egokitu zitzaidan "Tierra del Vino" bailarako mediku postua, izan ere, ordura arteko medikua zahartzen hasia zegoen. Badaramatzat bost urte mediku lanetan eta denbora nahikoa izan da inguruko herri txikietako pertsonen gaixotasun eta larrialdiko ebakuntzen arduraduna izateko. Bost urte hauetan, egia esan, ez dut izan aparteko zailtasunik egokitu zaizkidan erronkei aurre egiteko: tokatu zaizkidan gehienak gaixotasun larriak izan ez direnez, arrakastatsu jarraitu izan dut nire lanean beti. Egia da, kasu batean gaixo bat nire eskuetan hil zela, baina instalakuntza desegokien ondorioz izan zen, Arcenillaseko erietxe txikian ez baitauek ebakuntza larriak aurrera eramateko material aproposik. Beraz, Zamorako ospitalea da gure irtenbide bakarra eta hau 40 minutura aurkitzen da autoz joanez gero. Hala ere, herriko jauntxo gutxi batzuek besterik ez dute autoa eta ia ezinezkoa da Zamorara garaiz iristea.

Gaurko erronka, ordea, inoiz baino zailagoa izango delakoan nago. Erietxeko instalazioekin ebakuntza aurrera ateratzeko gai izango naizelako ustea dudan arren, beste kezka larri bat sortu zait: erronka morala.

Aldez aurretik deitu naute telefonoz, 57 urteko gizon bat bala batez zauritua izan dela esaka, ehizan zebilela. Zauria urdail aldean izan da eta basoa erietxetik 15 bat minutura dagoenez oinez etorrira, odolatan joango den beldur naiz. Gainera eskopeta sendo batek jota, sekulakoa izan beharko du gaixoaren oinazeak. Beraz, ebakuntzarako behar dudana prestatzen hasi naiz berehala. Hala ere, harritu egin nau bat-batean auto baten zarata entzuteak leihoaren bestaldetik. Ume zelatarien korrikaldiak eta jendearen larritasunak eragindako isiltasun deserosoa sumatu orduko jakin dut zauritua iritsi dela. Tokiz kanpo utzi nauena gaixoa niregana ekarri dutela izan da. Izan ere, autoa edukita, Zamorara joatea izango litzateke logikoena bala batek zauritu ondoren. Horrek bi gauza esan nahi ditu. Lehena, gaixoa aberatsa dela autoan

etorri delako; eta bigarrena eta garrantzitsuena, zauriak sakona izan behar duela Zamorara iristeko denbora emango ez duela pentsatu badute. Onartu beharra daukat egoera honek zeharo kikildu nauela, baina badakit ezinbesteko garrantzia daukala ebakuntza larri baten aurrean lasaitasunezko jarrera adierazteak, dena ongi ateratzea nahi bada.

Aitaren batean ireki diet atea eta lasterka bueltatu naiz materiala prestatzen jarraitzera. Autoan zetozen gizonek gaixoa bertatik atera eta ebakuntza gelara sartu dutenerako, prest nengoen ni mantala eta okasio berezietarako erabiltzen ditudan latexezko eskularruak jantzita. Herriko okina da gaixoa ekartzeaz arduratu denetako bat eta sartu denetik ohikoa ez duen begirada batekin begiratzen nau etengabe. Begirada izan da okinaren ezaugarri bereizgarriena betidanik. Bere aurpegi argalean gailentzen diren begi handi ilunek, menderaezina den begirada sendo bat eskaini izan digute beti Arcenillaseko herritarroi. Ia 6 urte nituenetik joan naiz okinarenera goizero. Ogia erosi ondoren, irribarre konplize bat egiten genion elkarri eta mahai azpitik aurreko egunean soberan geratutako kozkor pare bat eskaintzen zizkidan. Beraz, plazera zen niretzat okinarekin elkartzea. Gaurkoan, ordea, guztiz deseroso sentiarazten nau.

Berehala ulertu dut, ordea, begirada ezohiko horren zergatia. Esku-ohean dago etzanda gaixoa, buruz gora, zahartzen hasitako izara batek sudurreraino estaltzen diola gorputz osoa. Gorritzen hasia da izara sabel inguruan, eta esku-oheko larrua ere bustitzen hasia da. Okinari eta laguntzera etorri diren beste bi gizonei ateratzeko eskatu eta ebakuntza hastekotan gaixoarengana hurbildu naiz. "Burua hotz eta bihotza bero" esan dut nire baitan, lasai egoteko gogoraraziz neure buruari, unibertsitateko nire irakasle kuttunenak esan ohi zuen bezala. Urdindutako ilea, izerdi hotza darion kopeta eta bekain lodiak dira gizonari ikusten dizkiodan bakarrak. Izara kentzera noala azal zimurtua ukitu diot eta hotzikara bat hedatu zait gorputz osora. Horrez gain, badira 5 edo 10 minutu zauriaren eraginarengatik gizonak konortea galdu duela eta horrek are urduriago jarri nau, hildako batekin lanean ariko banintz bezala sentiarazten nauelako. Errespetuzko egoera iruditu zait, helduei diedan miresmenagatik-edo. Nire amona zenarekin bizi izan gara urtetan zehar nire anaia-arrebak, ama eta ni, eta agian familiara (ezinbestean behar genuen) ekartzen zuen alaitasunari zor zaio agureekiko errespetua. Edonork esango luke parkinsona dudala urduritasunak hatzak dardarazten dizkidan moduari erreparatuta. Hala ere, irmotasunez aldendu diot izara, sorbaldaraino heldu zaion arte.

Ez. Ezin da izan. Egoera sinesgaitza da. Begiak igurtzi ditut ikusten ari naizena egia dela ziurtatzeko. Bai. Bera da. Tabu antzeko bat izan da Luis Silva eta, ondorioz, Silvatarren familia guztia, nire etxean. Begi argi hauek ez dute pertsona honek barruan daraman ankerkeria salatzen, ezta gutxiago ere. Lan handirik egin gabeko itxurako esku hauek nire aita akabatu zutela pentsatze hutsak gorrotoz betetzen nau.

Betidanik bizilagunak izandakoak ziren Silvatarrak eta nire aita zenaren familia. Handia zen bien arteko laguntasuna. Nire aita Luis baino pare bat urte gazteagoa zen arren, futbol talde

berdinean jokatzeko zuten eta nire aitaren trebetasunak Luisena gainditzen zuten. Amak diobenaren arabera, aitaz gutxitan hitz egiten duen arren, orokorrean aita Luis baino bizkorragoa zen eta parte hartzen zuten ekintza orotan nabarmenagoa izateak Luis amorrarazi egiten zuten. Hala ere, nire aitak Luisi zion begirunea zela eta, beti errespetatu eta miretsi izan zuten Luis. Amonak behin kontatu zidanenez, Luis zen herrian txirrindua zuen ume bakarra eta herriko haur guztiek irrikaz begiratzen zioten Luisi, abiada bizian igarotzen zenean plazatik katu bati jarraikagedo. Arazo bakarra zeukan ordea: bere kasa katuak harrapatzen ibiltzeak nekatu zuten eta bizikletadun lagun bat behar zuten berarekin batera jolasteko. Horregatik, nire aitari, bere lagun minena izanda, txirrindu zahar bat eskaini zion. Horrelakoetarako Luisek bazeukan bihotz ona eta nire aita harrokeriaz betetzen zen Luisek bera aukeratzen zuenean horrelako egoeretan. Hala ere, zekenkeriaz jokatzeko ohitura zuten Luisek nire aitarekin. Adibidez, futboleko entrenamenduetan elkarren aurka jokatzeko taldeak aukeratzekoan, Luisek beste taldean uzten zuten beti nire aita. Beraren aurka gogor borrokatzen zen eta jokoz kanpoko ostikadak ere ematen zizkion gainerakoak konturatu gabe. Honek nire aitarekiko zuen bekaitza baretzen zion nire amonaren esanetan. Hala ere, ez zitzaion burutik pasatu ere egiten Luisen aurkako jarrera hartzea; nola egingo zion, bada, halakorik bere lagun minenari?

Horrelako gorabeherak tarteko iraun zuten Luisen eta aitaren arteko harremanak urtetan zehar: Luisek bihozgabe jokatzeko zuten gehienetan aitarekiko bere gorrotoa zela eta, eta nire aitak Luisek egiten zuten oro miresten zuten. Urteak joan eta etorri, bi lagunek neskalaguna aurkitu eta beren familia osatzeari ekin zioten. Bakoitza beren gurasoengandik herentziaz jasotako etxeetan bizi zirenez, bizilagunak izaten jarraitzen zuten. Begi-bistakoa zen nire aitaren neska, nire ama alegia, Luisen neskalaguna baino ederragoa zela; nire aitarekiko Luisek zeukan amorratioa handitzeko beste zergati bat. Hala ere, Luisek ez zion jokoz kanpoko ostikadarik eman aitari horregatik. Agian, bere estatus ekonomikoa nire familiarena baino handiagoa zelako (Silvatarren betidaniko ezaugarri bereizgarri bat nire familiarekiko) eta nire gurasoek bizitzan aurrera egiteko trabak izatea atsegingarria zitzaielako.

Elkarrekin bizitzen hasi eta gutxira, nire gurasoak ezkondu eta lehenengo semea eduki zuten, alegia, ni neu. Jarraian etorri ziren nire beste bi anaia-arrebak ere. Urrezko garaia zela esan daiteke nire familiarentzat. Baina nik 6 urte bete nituenean, 1936an alegia, zoritxarra hasi zen; Espainiako Gerra Zibila: alderdi nazionala, alderri errepublikarraren aurka. Arcenillasen garbi zegoen nor zen eskuindarra eta nor ezkertiarra. Adibide garbia zen Silvatarren eta nire familiaren arteko kasua. Eskuindarrek botere handiagoa zuten eta errepublikazaleak beldurrez bizi ziren nazionalak minduko zituzten zerbait egingo ote zuten. Hala ere, herri txikietan laguntasunak botere handiagoa izan ohi zuten pentsaerak baino, eta ez zegoen zertan kezkatu alderdi desberdinetako lagunak izanez gero. Urte hartako azaroko gau euritsu batean, sekulako danbategoa entzun ondoren etxeko atea nola botatzen zuten ikusi genuen. Lau bat guardia zibil etxean sartu eta aita arrastaka atera zuten. Amak sukaldeko atea itxi zigun gertatzen ari zenaz ez jabetzeko eta ondoren kalera irten zen guztiz aztoratuta. Beranduegi ordea. Aitaren

oroitzapen handirik ez daukadan arren, bihotzean iltzaturik geratu zitzaizkidan etxeko guztiak kikildu gintuen garrasi izugarria eta hura jarraitu zuten bizpahiru tiroren hotsak. Amari garrasi atsekabetua irten zitzaion gibeletik eta lurrera erortzen utzi zituen bere belaunak. Etxearen aurrealdean odolezko orbana utzita, aitaren gorpua arrastaka eraman zuten poliziek. Zalapartak bizilagun ugari gerturatu zituen etxeko atarira eta bizilagunak ama lasaitzen saiatu ziren. Kaleko etxe bakarretik, Silvatarretetik, ez zen inor atera ordea.

Gazteegiak ginen nire anaia-arrebak eta ni hura ulertzeko eta zaharragoak ginenean azaldu ziguten aita fusilatu zutela etxeko atarian. Bai, Luis Silvak, aitaren lagun minak salatu zuen gorria izateagatik. Geroztik ez zen bere izenik ahoskatu gurean. Amonarenera joan behar izan genuen, nire amak etxekoandrea izanik irabazirik ez zuelako eta familia aurrera ateratzeko modu bakarra zelako. Zer egin behar zuen hiru seme alabarekin? Eta are okerragoa zena, bidean zetorren beste batekin? Aitari zion bekaitza baretuko ez zitzaion, bada, nazkagarri hari hura akabatu ondoren! Herri guztiak zekien gertatutakoa, baina inor ez zen ausartuko Lusi aurre egiten beldurragatik eta honek herri guztian zuen izen onagatik.

Eta orain hau: nire familia lur jota eta ia aurrera ateratzeko esperantzarik gabe utzi zuen gizasemeari bizitza salbatu beharra. Oihala gerriraino atzeratu diot zauria agerian geratzen dela. Artaziak hartu ditut eta zauriaren inguruan duen arropa guztia ebaki diot, hau oztopo bat izan ez dadin. Ondoren, trapu busti batez igurtzi diot sabela; argi geratu da zauriaren larritasuna eta Zamorara eraman ez dutenaren zergatia. Zauri sakon honek lan handia emango didalakoan nago. Garbi dago non jo dion eskopetaren balak, eta pintza sakon batzuk beharko ditut hura ateratzeko, baita pazientzia handia ere kontuz ateratzeko eta odol-husturen bat ez eragiteko. Baina Luisen sabel zimurtua ukitzeak nire pentsamenduetan murgildu nau berriro ere.

Hori amorrua ematen zidana kalean sorbalda gainetik begiratzen zigun moduak. Ez al zuen nahikoa nire aitari egin zionarekin? Amonak beti esan izan digu “*no hay mejor desprecio que no hacer aprecio*”, hau da, ez diogula kasurik egin behar guretzat okerrera nahi duenari eta ez garela gutxiago sentitu behar gutxiestearren botatzen dizkigun begirada haiengatik. Eta hala, urteetan zehar ikasi dut Luisekin ezikusiarena egiten eta existituko ez balitz bezala jokatzeko. Eta orain, zergatik ez jokatu betidanik elkarrekin jokatu izan dugun bezala? Zergatik lagundu behar diot orain arte niretzat existitu ez den pertsonari?

Silvatarrek eta nire familiak badaukagu ezaugarri komun bat: harrokeria puntu bat. Nahiz eta Silvatarrena handiagoa izan, ez guk eta ez beraiek ez genion inoiz mesede bat eskatuko elkarri gertatutakoaren ondoren. Hil ala bizikoa izan arren, ez zitzaigun inoiz etsaiari faborerik eskatzea bururatuko. Ba ote zekien Luisek nire eskuetan zegoela haren bizitza? Beharbada ez zuen jakingo, agian nahiago izango zuen bere bizitzaren amaierara iritsi gure familiako batek aurrera ateratzen laguntzea baino. Ez du merezi gutako batek bizitza salbatzerik

egin zuena eta gero. Nik behintzat oso garbi daukat laguntzen badiot nire lanbidearengatik izango dela, eta inola ere ez nik salbaziorik opa diodalako. Gainera, ebakuntza hori gaizki ateratzea erabakiko banu, nork aurpegiratuko lidake ezer? "Nahigabeko" akatsa balitz? Gainera hain handia da gaixo aberatsaren zauriaren larritasuna non Arcenillaseko erietxera ekartzea erabaki duten! Nork pentsatuko ote luke nahita egin dudan zerbait izan dela gure material eskasa ikusita? Hala ere, badakit mediku izatean zure esku dagoen guztia egitera behartuta zaudela gaixo bat sendatzeko, baina nor etorriko da hori aurpegiratzera? Handia da benetan Luis odol-husten uzteko dudan tentazioa. Egia esan, bihotz onekotzat daukat nire burua eta ez zait inoiz burutik pasa norbaiti bizia lapurtzea. Dena den, hilketa al da hau? Azken finean ez naiz ni izan tirokatu duena. Medikua ez eta beste edonor banintz, ez litzateke hilketatzat joko.

Burua beste nonbait dudala kopetako izerdia kendu diot eta hau oso bero dagoela ikusita, zapi busti bat jarri diot bertan sukarra jaisteko asmotan. Ez dut denbora askorik. Duela 30 segundo garbitu dudan arren, zauriak ez dio uzten odola botatzeari eta urduritzen hasia nago. Trapuko odoleztatuak gure etxe atariko paretan astebete iraun zuen orbana gogorarazi dit. Sumindu egin naiz berriro. Gerra garaian bidegabekeria bazen pentsaeragatik norbait salatzea, are okerragoa egoera horretaz baliatzea miresten zintuen lagun bat akabatzeko; zergatik eta inbidia hutsagatik. Oinazeak eragin dion kexu itoak aldendu nau nire gogoetatik eta erabakia hartzeko unea iritsi dela konturatu naiz. Ezin dut gehiago itxaron. Gaixoa hiltzen bada, nik hala erabaki dudalako izan dadila eta ez dilema sakonean nengoela ezer egiteko denbora eman ez didalako. Halako batean ebakuntza gelako atea sendo jo dute. Okina da, dena ondo doan galdezka. Egia da, asko atzeratu naiz eta larritzen hasiak egongo dira hor kanpokoak. Imajinatzen dut okinak susmatzen zituela nire pentsamenduak eta horregatik eten duela momentua. Hasi ere ez naizen arren, baietz erantzun eta itxaron gelara bueltatu da. Atea ixten ari zela Amandaren, Luisen emaztearen, begirada eta nirea gurutzatu dira. Errukia adierazten duen begirada. Ez dut gogoan Silvatar batekin azkeneko aldiz gurutzatutako begirada, baina ziur naiz ez zuela halako intentsitatea izan. Amandaren begiek oihuka eskatzen didate mesedez bere senarra salbatzeko, nahiz eta jabetzen den hark egindakoaren ondoren ez zela harritzekoa izango nik berdina egitea. Hala ere, begi haiek 20 bat segundotan transmititu didatena hain izan da handia non nire arimari aurre egin eta mediku bezala jokatzea erabaki dudan. Hori bai, berebiziko mesedea egingo badiet ere, garbi daukat ez dudala beraien sari edo barkamenik onartuko eta Luis erietxetik irten orduko existituko ez balitz bezala jokatuko dudala berriro, orain arte bezalaxe.

Erabakitasunez hartu ditut edonori hotzikara sortuko lioketen pintza zorrotzak eta argi zuriko lanpara batez baliatuz balaraino eraman ditut haren puntak. Zorionez, zauri garbia izan da eta ondorioz ez zaio zornatu. Beraz, bala ateratzea lortzen badut, ongi irtengo da dena. Eginahalak egin ditut burdin zatia ateratzeko, ondo iltzatuta baitago haragian. Gaixoak berriro egin du aurreko oihu kexati bera eta aurpegia are eta gehiago zurbiltzen hasi zaiola konturatu naiz; odol gehiegi galdu du. Ateratzea lortu dut eta orain josteko ordua iritsi da. Behin bala

aterata, josi ondoren odol gehiago ateratzen ez bada, egina dago. Beraz, haria hartu eta zauria itxeari ekin diot. Trapu garbi batez ondo garbitu dut orbaina eta desinfektatu ere bai. Minutu bat itxarotea nahikoa izan da odola ateratzen ez dela ziurtatzeko. Aurpegi zuria koloreztatzen hasi zaio eta ebakuntza gelako atea irekita okinari sartzeko eskatu diot. Amandak kezkatuta begiratu nau zerbait gaizki atera den beldurrez. Urduri ez nagoela ikusita, ordea, sekulako lasaitua hartu du. Okina gaixoarengana gerturatu da eta dena ongi irten dela ulertu duenean niregana hurbildu da:

-Beldur nintzen mendekua hartzea erabakiko zenuen. Baina argi utzi didazu zein ausarta zaren eta zein bihotz onekoa.

Duela minutu batzuetako bere begirada deserosoa guztiz aldatu da eta ogi kozkorrak eskaintzen zizkidanekoa bihurtu da. Espero ez nuen besarkada bat jaso dut.

-Eraman ezazu hemendik eta ez dadila berriro etorri. – erantzun diot hotz besarkadari.

Autoa nola aldentzen den begira, egin berri dudana zuzena izan ote den galdetzen diot neure buruari eta zuzena dela ondorioztatu dut; Luisek ez dio utziko gaiztoa izateari, baina ni bestelakoa naiz.

Komala